

ERREPASOA: MATERIAREN EGOERA FISIKOAK II

Gasen legeak


2. Osatu esaldiak egoera hauetan gertatzen dena azaltzeko:



Urpekari batek ur sakonean askatutako burbuilari zer gertatzen zaio? Demagun temperatura ez dela aldatzen sakoneraren arabera. Ur sakonean presioa handiagoa denez ur azalean baino, burbuilak gora egin ahala presioa txikituz doa, haren bolumena _____tuz.



Neguko egun batean, penumatikoen presioa autoa arrankatu berritan neurtu edo kilometro asko egin ostean neurtu desberdina da. Izan ere, autoa dabilenean gurpilaren eta errepidearen marruskaduraren ondorioz gurpilaren barruko gasaren temperatura handitu egiten da, eta bolumena aldatzen ez dela kontsideratzen badugu, presioa ere _____tu egiten da.



Arnasa hartu



Arnasa bota

Arnas hartzean, diafragma jaitsi egiten da kaxa torazikoaren bolumen handituz. Hori dela eta biriken barruko presioa _____agoa da eta airea organismo barrura sartzen da.

Arnasa botatzean, aldiz, diafragma igo egiten da eta toraxaren bolumena txikitzen da biriketako presioa _____tuz eta airea kanpora irtetzen da.